



ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL

XI LEGISLATURA

XI AGINTALDIA

Serie B Información, control e impulso

XXV Proposición no de norma

Informazioa, kontrola eta sustapena **B Saila**

Arauz besteko proposamena **XXV**

Número 6c

Bilbo, 2019ko urriaren 1a
Bilbao, 1 de octubre de 2019

6c Alea

ASUNTO: Cambio climático

AUTOR: Irene Edesa Gómez/ Ekain Rico Lezama

Acuerdo del Pleno

El Pleno en su sesión de fecha 25 de septiembre de 2019, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

Aprobar la iniciativa

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 25 de septiembre de 2019.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

KOLDO MEDIAVILLA AMARIKA, Secretario Primero de las Juntas Generales

CERTIFICO:

Que la Junta General, válidamente celebrada el día veinticinco de septiembre de dos mil diecinueve, en el Salón de Sesiones de la Casa de Juntas de Gernika, acordó aprobar la Proposición No de Norma sobre cambio climático, conforme al siguiente texto:

“Las Juntas Generales de Bizkaia, en el marco de la situación de Emergencia Climática declarada por el Gobierno Vasco el pasado 30 de julio, instan a la Diputación Foral de Bizkaia a adoptar los siguientes compromisos:

1. La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a adoptar los compromisos políticos pertinentes, aprobar las disposiciones necesarias y comprometer los recursos precisos para garantizar la neutralidad en carbono de Bizkaia tan pronto como una transición ecológica justa lo permita y en cualquier caso, nunca más tarde del año 2050.

2. La Diputación Foral de Bizkaia, en sintonía con la futura Ley Vasca de Cambio Climático y dentro del ámbito de sus competencias, establecerá un Plan de Acción Climática foral alineado con la Estrategia de Cambio Climático de Euskadi, Klima 2050 y con el Plan de Acción Climática de Euskadi. Este Plan integrará la mitigación y la adaptación al cambio climático en todas las actuaciones de planificación sectorial y territorial de su competencia teniendo en cuenta las emisiones de gases de efecto invernadero y los riesgos a que está expuesto por efecto del cambio climático.

GAIA: Aldaketa klimatikoa

EGILEA: Irene Edesa Gómez/ Ekain Rico Lezama

Plenoko Akordioak

Aitaturako gaia dala-ta, hurrengo Erabagia hartu dau Osokoak 2019ko irailaren 25ean izandako bileran:

Ekimena onartzea

Guztiak horren jakitun egon daitezkan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2019ko irailaren 25ean.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri**.

Nik, KOLDO MEDIAVILLA AMARIKAK, Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak, hurrengo hau

EGIAZTATZEN DOT:

Batzar Nagusien Osokoak, Gernikako batzarretxeko batzar-aretoan bi mila eta irailaren hogeita bostean balio osoz egindako bileran, aldaketa klimatikoari buruzko arauz besteko proposamena onartzea erabagi ebala, testu honen arabera:

“Eusko Jaurlaritzak uztailaren 30eko adierazpenean azaldutako klimaren gaineko larrialdi-egoera dala-ta, Bizkaiko Batzar Nagusiek konpromiso honek hartzeko eskatzen deusie Bizkaiko Foru Aldundiari:

1. Bizkaiko Foru Aldundia konprometitzen da egokiak diran konpromiso politikoak hartzera, behar diran xedapenak onartzera eta Bizkaian karbono-neutraltasuna bermatzeko behar diran bitartekoak ziurtatzera, trantsizio ekologiko bidezko batek horretarako aukerea emoten dauen bezain laster, baina edozein kasutan ez 2050 baino gerago.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak, etorkizunean izango dan Klima Aldaketaren Euskadiko Legeagaz bat etorriz eta bere eskumenean barruan jardunez, Klimaren Arloko Ekintza Plana ezarriko dau Bizkaian, Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiaren (“Klima 2050”) eta Klima Arloko Euskadiko Ekintza Planaren ildo beretik. Plan horrek bere eskumenekoak diran sektore- eta lurralde-plangintzako jarduketa guztietan txertatuko ditu klima-aldaketea arintzeko eta egokitzeko neurriak, kontuan harturik zeintzuk diran berotegi efektuko gasen igorpenak eta klima-aldaketearen ondorioz dagozan arriskuak.

3. Mientras tanto, la Diputación Foral de Bizkaia actuará con decisión en la puesta en marcha de acciones que ayuden a mitigar la crisis climática. Asimismo promoverá acciones que contribuyan a la adaptación del Territorio Histórico de Bizkaia al cambio climático.

4. La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a promover la colaboración público-privada con los sectores económicos del territorio en la adopción de medidas de compromiso con el medio ambiente que contribuyan a mitigar la crisis climática y reduzcan las emisiones de CO2, en el objetivo de lograr la neutralidad de carbono en Bizkaia. Asimismo, promoverá los acuerdos interinstitucionales que faciliten el logro de estos objetivos.

5. La Diputación Foral de Bizkaia se compromete en la mejora de la educación, la sensibilización y la capacidad humana e institucional respecto de la mitigación del cambio climático, la adaptación a él, y la reducción de sus efectos y a comunicar a la ciudadanía los riesgos y las acciones a realizar ante los mismos.

6. La Diputación Foral de Bizkaia apuesta por la acción ejemplarizante de la administración foral ante la emergencia climática que se pondrá de relieve en el ámbito de sus competencias y en sectores clave de actividad.

Y para que así conste, expido la presente certificación, con el Visto Bueno de la Excm. Sra. Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, a veinticinco de septiembre de dos mil diecinueve.

El Secretario Primero,
Koldo Mediavilla Amarika

Vº Bº La Presidenta,
Ana Otadui Biteri

3. Bien bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak erabagitasunez jokatu dau klima-krisia arintzeko lagungarriak diran ekintzak martxan jarten. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoa klima-aldaketara egokitzeko balioko daben ekintzak sustatuko ditu.

4. Bizkaiko Foru Aldundia konprometitzen da lurraldeko sektore ekonomikoakaz lankidetzan publiko-privatua sustatzera, ingurumenaren arloan konpromisozko neurriak hartu behar diranean, neurriokaz klima-krisia arintzen eta CO2 igorpenak murrizten laguntzeko, Bizkaian karbono-neutralitasuna lortzea helburu harturik. Era berean, erakundeen arteko akordioak sustatuko ditu helburu horreek errazago lortze aldera.

5. Bizkaiko Foru Aldundia konprometitzen da, klima-aldaketea arintzeko, heziketea, sentsibilizazioa eta giza eta erakunde-gaitasuna hobetzera, klima-aldaketari begira egokitzapenak egitera, aldaketaren kalteak arintzera eta herritarrak jakitun ipintera zeintzuk diran arriskuak eta zer egin behar dan arriskuon aurrean.

6. Bizkaiko Foru Aldundiak foru administrazioaren ekintza eredugarriaren aldeko apustua egiten dau klima-arloko larrialdiaren aurrean, ekintza eredugarri hori bere eskumenen esparruan eta jarduera-sektore funtsezkoetan aurrera eroanez.

Eta erasota geratu daiten egiten dot egiaztagiri hau, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari andra txit gorenaren on-eritxiagaz, Bilbon, bi mila eta hemeretziro irailaren hogeita bostean.

Lehenengo Idazkaria,
Koldo Mediavilla Amarika

O.E.: Lehendakaria,
Ana Otadui Biteri